

## XEDAPEN OROKORRAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 632

*EBAZPENA, 2016ko urtarrilaren 26koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, Industria eta Berrikuntzako sailburuaren 2009ko uztailaren 27ko Aginduaren –presio ekipoen erregelamenduari (PEE/REP) buruzko arauak ematekoa– 3.B eranskina aldatzekoa.*

Presio-ekipoen erregelamenduari (PEE/REP) buruzko arauak emateko Industria eta Berrikuntzako sailburuaren 2009ko uztailaren 27ko Aginduak presio-ekipoen erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituen abenduaren 12ko 2060/2008 Errege Dekretuaren betekizunak EAEn aplikatzeko irizpideak ezarri zituen.

Agindu horretara erregelamendu hori bete dela egiaztatzen duten agirien datuak eta erabilitako eki-poak eta likidoak deskribatzeko era batu behar dira, baita identifikaziorako irizpide batuak ezarri ere.

Presio eki-poak merkaturatzeko funtsezko segurtasun betekizunak ezartzeko uztailaren 24ko 709/2015 Errege Dekretuaren bidez egokitu da legeria 2014/68/EB Zuzentarau berria, zeinak 97/23/EB Zuzentzaraia, presio fluidoaren sailkapenaren oinarria, ordeztzen baitzuen.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008/EE Erregelamendua, substantzien eta nahasketen sailkatzeari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoa, aplikatzeko xedapen berriek sailkapen irizpide berriak ezarri dituzte presio ekipoen dagoen fluidoaren arriskugarritasunaren arabera.

Irizpideok behar bezala aplikatu eta gorago xedatutako arauak egokitzeko, beharrezkoa da 2009ko uztailaren 27ko Aginduaren 3.B eranskina aldaraztea.

Aginduaren azken xedapenetako laugarrenaren arabera, eskudun zuzendariak aginduaren eranskinak alda ditzake.

Aipatutako lege manuak, eta, oro har eta bat etorritik aplikatzekoak diren xedapen guztiak aintzat hartuta, hau:

#### XEDATZEN DUT:

1.– Presio-ekipoen erregelamenduari (PEE) buruzko arauak emateko Industria eta Berrikuntzako sailburuaren 2009ko uztailaren 27ko Aginduaren 3.B eranskina aldatzea, eta honelaxe geratuko da.

2.– Ebazpen hau eta eranskina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 26a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,  
AITOR PATXI OREGI BAZTARRIKA.

## ERANSKINA

## 2009-07-27KO AGINDUAREN 3.B ERANSKINA ALDATZEA

## B.- FLUIDO MOTAK

Presio-ekipoen fluidoak hiru digitu erabiliz identifikatuko dira:

a) Presio ekipoak merkaturatzeko funtsezko segurtasun betekizunak ezartzeko uztailearen 24ko 709/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako fluido-taldeari dagokio lehen digitoa. Adierazi behar diren fluido taldeak honako hauek dira:

- 1: fluido arriskutsua
- 2: arriskutsua ez den fluidoa

1. taldea ondoko fluidoei (substantziak eta nahasketak) dagokie:

- Lehergailu ezegonkorak edo 1.1, 1.2, 1.3, 1.4 eta 1.5. mailetakoak.
- 1 eta 2. mailetako gas sukoiak.
- 1. mailako gas erregarriak.
- 1 eta 2. mailetako likido sukoiak.
- 3. mailako likido sukoiak, gehieneko tenperatura onargarria sute puntua baino handiagoa denean.
- 1 eta 2. mailetako solido sukoiak.
- Atik F motara arteko substantzia eta nahaste autoerreaktiboak.
- 1. mailako likido piroforikoak.
- 1. mailako solido piroforikoak.
- Ura ukitzean gas sukoiak askatzen dituzten substantziak eta nahasketak (1., 2. eta edo 3. mailetakoak).
- 1, 2 eta 3. mailetako likido sukoiak.
- 1, 2 eta 3. mailetako solido sukoiak.
- Atik F motara arteko peroxido organikoak.
- 1 eta 2. mailetako aho toxikotasun larria.
- 1 eta 2. mailetako larruzal toxikotasun larria.
- 1, 2 eta 3. mailetako arnastegatiko toxikotasun larria.
- 1. mailako zenbait organotako toxikotasun espezifikoa (esposizioa bakarra).

Fluidoarenugar-puntua gainditzen duen gehieneko tenperatura onargarria (TS) duten substantziak eta nahasketak ere.

2. taldea 1.1. atalean ez dauden substantzia eta nahasketei dagokie.

b) Bigarren digitua ekipoan dagoen fluido arriskutsuenaren egoera fisikoari dagokio. Honelaxe adieraziko da:

- 1: Gas egoera
- 2: Likido egoera

c) Hirugarren digitua fluidoaren arriskuari edo erabilitako fluidoari dagokio.

Adierazitako irizpideak erabiliz, fluido motaren sailkapena honako hau izango da:

-	-
1.1.2	Gas toxikoa (i)
1.1.3	1. mailako gas erregarria
1.1.4	Gas lehergaia (ii)
-	-
-	-
1.1.7	1 eta 2. mailetako gas sukoiak
1.1.8	Gas likidotu kriogeniko sukoa (EP-4)
1.1.9	Gas likidotu kriogeniko erregarri edo oxidatzailea (EP-4)
-	-
1.2.2	Likido toxikoa (i)
1.2.3	1, 2 eta 3. mailetako likido erregarria
1.2.4	Likido lehergaia (ii)
-	-
-	-
1.2.7	Likido sukoa (iii) Líquido inflamable (iii)
1.2.8	Bestelako substantzia arriskutsuak (iv) Otras sustancias peligrosas (iv)
2.1.1	Aire konprimitua
2.1.2	Ur lurrina edo ur gainberotua
2.1.3	Gas konprimitu edo likidotu ez arriskutsua
2.1.4	Gas likidotu kriogeniko geldoa (EP-4)
2.1.5	Bestelako gas ez arriskutsua
2.2.1	Ura
2.2.2	Olioak
2.2.3	Bestelako likido ez arriskutsua

(i) 1 eta 2. mailetako aho edo azal bidezko toxikotasun larria edo 1, 2 eta 3. mailetako arnasteagatiko toxikotasuna edo zenbait organotako toxikotasun espezifikoa (esposizio bakarra).

(ii) 1.1, 1.2, 1.3, 1.4 eta 1.5. mailetako lehergailu ezegonkorra.

(iii) 1 eta 2. mailetako likido sukoiak edo 3. mailakoa, gehieneko tenperatura onargarria sute puntua baino handiagoa denean.

(iv) Atik F motara arteko substantzia eta nahasketa autoerreaktiboak; 1. mailako likido edo solido piroforikoak; ura ukitzean gas sukoiak askatzen dituzten substantziak eta nahasketa (1, 2 eta 3. mailetakoak); Atik F motara arteko peroxido organikoak; 1 eta 2. mailetako solido sukoiak eta 1, 2 eta 3. mailetako solido erregarriak.